

## **7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure proiektuak.

Lau zatitan sailka ditzazkegu baliabide hauek:

- Baliabide fisikoak
- Baliabide intelektualak
- Giza-baliabideak
- Finantza-baliabideak

Gure kasuan, **baliabide fisikoak**: pultserak gordetzeko biltegia, lan egiteko ordenagailuak, ofizina egokitua, lan materialak diseinuarekin aritzeko...

**Baliabide intelektuen** artean, proiektuan parte hartzen ari garen pertsonak gara, bakoitzak bere eginkizunak dauzka proiektu honetan.

**Giza-baliabide** arloan: bakoitzaren esperientziak, kualitateak, gaitasun eta ahalmenak, bertuteak...

**Finantza baliabideen** arloan dirua eta baliozko materialak sartzen dira, baita gure inbertsio planak, gastuak eta soldatak (gure aportazioak, maileguak...)